

Etika eta Jokabide Kodea

La Salle
ARLEP Barrutia





Etika eta Jokabide Kodea La Salle Arlep Barrutia

AURKIBIDEA

0. SARRERA	5
1. ETIKA KODE BATEN BEHARRA	9
2. APLIKAZIO-ESPARRUA	10
3. ARAUTZEA	12
3.1 Pertsonen arteko harremanak	12
3.2 Komunikazioa	12
3.3 Bateriaezintasunak eta debekuak	13
3.4 Irudia	16
4. BETEBEHAR PERTSONALAK	17
5. BAZTERKETARIK EZA	18
6. INTERES-GATAZKAK	19
7. EROSKERIAK, KOMISIOAK, BEZUZAK, OPARIAK	20
8. INFORMAZIO PRIBILEGIATUA BIDEGABEKI ERABILTZEA	21
9. JABETZA INTELEKTUALA	22
10. PRIBATUTASUNA ETA DATUEN BABESA	23
11. LEGEAK BETETZEA	24
12. FINANTZA-INFORMAZIOAREN OSOTASUNA	25
13. ETIKA-BATZORDEA	26
14. SALAKETAK ETA ZIGORRAK IZAPIDETZEA	27





Etika eta Jokabide Kode honek La Salle ARLEP Barrutiko (aurrerantzean, Barrutia) Kristau Eskoletako Anaien Institutuak garatutako jarduerak kudeatzeko orduan kontuan hartu beharreko konpromiso eta ardura etikoak azaltzen ditu, eta Barrutia osatzen duten pertsona guztiek ezagutu eta onartu behar dituzte, Kode honetan azaltzen den terminoetan.

Kristau Eskoletako Anaien Institutuaren xedea, Kristau Eskoletako Anaien Araudian jasotakoa (ikus Araudia 3), honako hau da: gazteei, pobreei batik bat, giza eta kristau hezkuntza segurtatzea, Elizak bere esku jartzen duen ministerioaren arabera, Ikastetxeen bidez eta garaian garaiko eta herrialdeetako beharren arabera egokitutako beste irakaskuntza- eta hezkuntza-moten bidez. Misio Proiektuak eta La

0. SARRERA

Salleko Hezkuntza Zentroen Berezko Izaerak eguneratzen dute xede hori, kontuan izanik gaurko eta oraingo testuingurua.

Barrutiak xede hori bere gain hartzen du honako hauek sustatuz, besteak beste:

1.- Hezkuntza-zentroak:

- Ikastetxeak..
- Unibertsitate-erakundeak.
- Eskolaren eremuaren barnean edo kanpoan premia handien dituzten pertsonen arreta eskaintzen dieten gizarte-hezkuntzako zentroak: dibertsitate funtzional batek eragindako pertsonak, drogen

mende daudenak, adineko pertsonak, gizarte-bazterketa edo marjinazioa jasateko arriskua duten gazteak, etab.

2.- Jarduera eta ekimen hezitzaileak eta ebanjelizatzaileak, hala nola Ikastetxe Nagusiak, Irakasleen Egoitzak, Espiritualtasun-zentroak eta Irakasleen formaziorakoak, ingurumen-hezkuntzarekin lotutakoak, heziketa fisikoarekin edo kirolarekin eta aisialdiarekin lotutakoak, hezkuntza-argitalpenak (edizioak), Helduen Hezkuntza, tokiko elizarekiko lankidetzak, etab.

3.- Beste zenbait jarduera etorkizunean hezkuntza-premiei erantzuteko, Kristau Eskoletako Anaiei Institutuko xedearen barnean.

4.- Lankidetzako jarduerak garapen bidean diren herrialdeetan, hezkuntzarekin eta pertsonaren formazio integralarekin lotutakoak.

Etika eta Jokabide Kode hau Barrutiak bere jardura guztietan duen profesionaltasunaren adibide bat da, bai irakaskuntzan, pastorgintzan edo zerbitzuzko jardueretan, eta profesionaltasun hori bera espero da kide guztiengandik.

Hezkuntza-erakundea denez eta sozialki arduratsua, Barrutiak oso garrantzi handia ematen dio langileekiko, ikasle eta haien familiekiko, bo-

luntarioekiko, hornitzaileekiko, agintariekiko eta publikoarekiko bidezko harremanari.

Barrutiaren ustetan, Kode honek ez du berez sortzen aurrez dauden beste betebeharrak batzuetatik aparteko betebeharrak berririk, konpromiso instituzionalen bidez datozenak, edota legez edo boluntarioki onartutako hitzarmen bidez datozenak; baina, betebeharrak horietan aurrera egingen du, eta beroriek betetzeko jokabide egokiak zehazten eta argitzen ditu, eskuratu nahi diren xedeen lorpena sustatzeko nahiz zuzeneko interesdunei eta, oro har, gizarteari, egoki beteko diren bermea emateko. Etika eta Jokabide Kode hau nahitaezkoztat jotzen da, eta kontuan izan behar da Barrutiko erakundeetako enpleguaren eta zerbitzu-prestazioen baldintzetan.

Etika eta Jokabide Kode hau hartu du Barrutiak bere kideek eta Barrutiarekin erlazionatzen diren guztiek bete behar dituzten balioak zehazteko. Honako hauetan oinarritzen dira balio horiek:

- Nazioartean aitortutako giza eskubideen babesa eta errespetua.
- Jokabide etikoa, legea errespetatuko duena

- Barrutiarekiko konpromisoa.
- Barrutiarekin nolabaiteko lotura bat duten guztien arteko tratu bidezkoa, adeitsua eta errespetuzkoa: irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, boluntarioak, ikasleak eta horien familiak eta hornitzaileak.
- Ingurumena behar bezala zaintzea.
- Barrutiarekin lotutako beste pertsonen interesak kontuan izatea, honako hauek barne: irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, boluntarioak, ikasleak eta horien familiak, hornitzaileak, agintariak eta publikoa.
- Profesionaltasuna eta zuzentasuna Barrutian egindako edozein jarduera garatzeko orduan.

Betetze Programa bat abiarazi du Barrutiak, Zigor Kodearen 1/2015 Lege Organikoaren erreformak eskatzen duenari jarraiki, eta, programa horretan:

a.- Aurrea hartu behar zaien delituak egin daitezkeen jarduerak identifikatu dira.

b.- Honako hauek zehazten dituzten protokoloak edo prozedurak ezarri dira: pertsona juridikoaren borondatea eratzeko prozesua, erabakiak hartzekoa eta erabaki horiek haiekiko gauzatzekoa.

c.- Finantza-baliabide egokiak kudeatzeko ereduak jaso dira, aurrea hartu behar zaien delituak egitea saihesteko.

d.- Aurrea hartzeko ereduaren funtzionamendua eta horren betetze-maila zain-tzeaz arduratzen den organismoari sor daitezkeen arriskuei eta ez-betetzei buruz informatzeko derrigortasuna ezartzen da.

e.- Ereduak ezartzen dituen neurriak betetzen ez badira, zigor egokiak ezartzeko diziplinazko sistema bat zehazten da.

f.- Eredua eta horren behin-behineko aldaketa egiaztatzen da aldian-aldian, xedapenen arau-hauste garrantzitsuak gertatzen badira edo antolamenduan, kontrol-egituran edo garatutako jardueran aldaketak gertatzen badira eta egiaztatze horiek egiteko beharra sortzen bada.

Kode hau aplikatuko den eremuak:

- Betebehar pertsonalak.
- Diskriminazioaren aurkako ekintzak.
- Interes-gatazkek.
- Eroskeriak, komisioak, bezuzak eta enpresa-opariak.
- Informazio pribilegiatua bidegabeki erabiltzea.
- Konkurrentziaren defentsa.
- Jabetza intelektualak.
- Pribatutasuna eta datuen babesa.
- Legeak betetzea.
- Aktiboen eta Hezkuntza Sarearen informazioaren erabilera eta babesa.
- Hezkuntza Sarearen komunikazio-tresnak eremu pertsonalean erabiltzea.
- Finantza-informazioaren integritatea.
- Salaketak eta zigorrak izapidetzea.



1. ETIKA ETA JOKABIDE KODE BATEN BEHARRA

Giza eta kristau balioak garatzea, berauek sustatzen dituzten ekintzen bitartez, funtsezkoa da Barrutian eta errespetatu egin behar dira, bereziki bizikidetzaz, justizia, senidetasuna, barnetasuna eta transzendentziara irekitzea, solidaritatea eta behartsuenganako konpromisoa.

Barrutiko kideek beren jarduerarekin lotutako jardunbide egokiak ezagutu behar dituzte. Horrez gain, beren sen ona baliatu behar dute lege-betebeharrak edo jardunbide egokiak argi ez dauden egoera guztietan. Bestalde, horrelako egoerak suertatzen direnean, aholkua edo jarraibideak eskatuko dizkiete eskumena duten aginte-organoei.



2. APLIKAZIO- ESPARRUA

Jarduera Barrutiaren barnean garatzen duten pertsona guztiei emango zaie pertsonalki Kodearen berri, eta idatziz adierazi beharko dute berori betetzeko konpromisoa. Beraz, honako hauei aplikatuko zaie Kodea:

- Institutuko Anaiei.
- Asoziatuei.
- Besteren konturako langileei (Irakasleak eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak).
- Norberaren konturako langileei.
- Boluntarioei.

Kodea betetzeko obligazioa espresuki jasoko da honako hauetan:

- Anaien eta asoziatuen kasuan, berariazko dokumentuetan.
- Besteren konturako langileen kasuan, langile horien kontratuetan; kontratuaren kopia bat emango zaie langileei, lanean hasten direnean.
- Norberaren konturako langileen kasuan, zerbitzuak eskaintzeko kontratuetan.
- Boluntarioen kasuan, Kodea betetzeko obligazio hori Barrutiko ikastetxeetan laguntzen duten boluntarioen hitzarmenetan jasoko da.

Kode honen aplikazioa, osorik edo zati batean, Barrutiarekin lotutako edozein pertsona fisiko edota juridikorengana hedatu ahal izango da, berorren xedea betetzeko hala komeni denean eta posible denean erlazioaren izaera kontuan izanik.

Dagozkion xedeetarako, ez dira hezkuntza-zentroaren instalaziotzat hartuko erlijiosoen e-txebizitzetako eremuak.





3. ARAUTZEA

3.1.- Pertsonen arteko harremanak

3.1.1.- Gardentasunez jokatuko dute beti langileek, interpretazio desegokiak eragin ditzaketen egoerak edo jokabideak saihestuz.

Alde horretatik, familiekiko elkarrizketak eta ikasleekiko tutoretzak honela egingo dira:

- Ikastetxean egingo dira beti, **toki ikusgaietan** (gela beiraztatuetan, ateak irekita, zentro bakoitzaren egokiera fisiko edo arkitektonikoen arabera).
- ● Beste pertsona heldu baten aurrean, hala dagokiola irizten badugu, edo adingabearen familiaren aurrean, beharrezkoa bada.

- Zuzendaritzari aurretiaz jakinaraziko zaio, beharrezkoa bada.

3.1.2.- Txerazko adierazpenak mugatuko dira harrera, onospena, ulermena, entzute enpatikoa eta estimua adierazteko, eta anbiguotasuna edo interpretazio okerra sor dezakeen nahiz beste pertsonaren intimitatea inbadi dezakeen ukipen fisiko edota hitzezko oro saihestuko da.

3.1.3.- Hezkuntza-elkarteko kide guztiekiko tratua errespetuzkoa izango da ahozko adierazpenei dagokienez, eta hitz itsusiak eta zantarrak erabiltzea saihestuko da; ez zaio inori inolako etiketarik ezarriko, ez da inolako bazterketarik egingo eta ez gara inoren intimitate pertsonal fisiko eta psikologikoan sartuko, zeregin profesionaleri erantzuteko beharrezkoa den neurritik harago.

3.1.4.- Errespetuz jokatu dugu beste kideen lanarekin, ez ditugu alderdi pertsonalak erabiliko kritika negatiboak egiteko, eta Zuzendaritzak ezarritako bideak erabiliko ditugu norbaiten lanarekin edo jokabidearekin dugun desadostasuna adierazteko.

3.1.5.- Sekretu eta konfidentzialtasun betebeharrak gordeko da. Ikasleei, haien familiei edo beste hirugarrenei ez zaie emango norberaren edo beste norbaiten (beste ikasle, haien familiak edo hezkuntza-elkarteko beste edozein kide) bizitza pribatuko edozein arlori buruzko xehetasunik, eta ez diegu horien inguruko azalpenik emango, ez eta une horretan ikaslearekin zuzenean lotuta ez dauden hezkuntza- edo antolamendu-esparruko gaiak buruzkorik ere.

3.1.6.- Antolamenduarekin eta funtzionamenduari lotutako arauak errespetatuko eta errespetaraziko dira, eta erakunde bakoitzean elkarbizitza bultzatuko da, jarduerak garatzeko giro egokiari eusteko ahalegina eginez eta erakunde bakoitzeko Zuzendaritzak horretarako ezarritako bide egokiak erabiliz, sor daitezkeen gatazkak konpontzeko, eta edozein motatako indarkeria fisiko, psikologiko edo soziala saihestuz.

Alde horretatik, Barrutirako edozein ekintza egingen duten pertsonak erakunde bakoitzak ezarri-

tako protokoloak eta aplikagarri den legediak (Barne-jarduerako Arautegia, Antolamendu eta Funtzionamendurako Arautegia, Elkarbizitza Plana, etab.) aplikatu behar dituzte elkarbizitzaren arloan sortutako edozein gatazkaren aurrean, gatazka horiek hautemateko, eteteko eta konpontzeko.

3.1.7.- Materialak eta instalazioak ondo zainduko dira eta garbi mantenduko, eta modu egokian eta arrazionalki erabiliko dira.

3.1.8.- Familia-hausturaren kasuan, horretarako zehaztutako protokoloak aplikatuko dira, haurrak jasotzeko orduan, osasunarekin lotutako egoeretan (gaixotasun arruntak, kronikoak edo larrialdiak) edo ager daitekeen beste edozein arlotan.

3.2.- Komunikazioa

3.2.1.- Ahozko edota gorputz-mintzaira zainduko dira, oihuak edo irainak nahiz pertsonak "etiketatzea" saihestuz. Ez da hizkera arrunta erabiliko, eta, bereziki, ez da sexu-konnotazioa izan dezakeen iruzkinik edo keinurik egingo.

3.2.2.- Arretaz jokatu da ekitaldi publikoetan eta, oro har, hedabide orokorretan, izaera pertsonalekoak izanda ere sarbide publikoa dute-

nean, hala nola blogetan, sare sozialetan, web orrialdeetan, prentsa idatzian edo digitalean, etab., eta kontu izango da Barrutiaren edo bertako edozein kideren nortasuna edota irudia urra ez dadin.

3.2.3.- Ikasleekiko eta familiekiko jakinarazpenak, gai akademikoei eta zentroko antolamenduari buruzkoak, horretarako ezarritako bide formaletatik soilik gauzatuko dira (plataforma digitala, posta elektronikoa instituzionala, etab.), eta idatziz jasoko dira.

3.2.4.- Ez da ikasleen edo haien familien irudirik edo izaera pertsonaleko beste daturik argitaratuko sare sozialetako kontu partikularretan nahiz instituziotik kanpoko webguneetan.

3.2.5.- Eskura jarritako baliabide materialak eta teknologikoak horiei esleitutako zeregina garatzeko erabiliko dira, eta ez dira xede pertsonaletarako erabiliko. Barrutiak izendatutako arduradunek, edozein unetan, baliabide horiek ikuskatu, aldatu edo ordezkatu ahal izango dituzte, eta norbanakoa izango da horien egoeraren edota edukiaren arduradun.

3.2.6.- Hezitzailearen irakaskuntza-jardueraren esparruaren barnean soilik erabili ahal izango dira gailu teknologikoak ikastetxeetako ikasleekin (tabletak, ordenagailu eramangarriak, mugikorrak...).

Posta elektronikoa instituzionalen helbideak lan-jarduera garatzeko bakarrik erabiliko dira, eta ezingo dira beste xedetarako erabili.

3.2.7.- Ezingo da egin erlijioekin, oro har, eta erlijio katolikoarekin, partikulariki, lotutako gaien inguruko iruzkin negatiborik edo iraingarrik.

3.2.8.- Halaber, eskola barnean ez da izaera politiko edo sindikaleko iritzirik emango ikasleen edo horien senideen aurrean, eta ez da aukera politiko baten edo erakunde sindikal baten aldeko propagandarik egingo.

3.3.- Bateriaezintasunak / Debekuak

3.3.1.- Kode honek eragiten dien pertsonen eta ikasleen arteko harreman sentimentalak edota sexualak debekatuta daude, adina eta sexu-izaera edozein izanik ere.

3.3.2.- Halaber, ezin da harreman desegokirik edo afektibo – sexualik eduki ikasleen gurasoekin edo legezko tutoreekin, harreman horien kanpoko proiektzioak negatiboki eragiten dituzten Barrutiko balioei eta irudiari, hezkuntza-elkarteari edota eragindako ikasleei.

3.3.3.- Irakasleek, Ikastetxeen egitura pedagogikoak horretarako aukera ematen duenean, ez dituzte ikasleak kalifikatu edo ebaluatuko, ikaslearen, irakaslearen eta haren aitaren, amaren edo legezko tutorearen artean guraso-erlazioak daudenean, haien ezkontideak direnean edo erlazio afektibo antzekoa dagoen kasuetan. Egitura pedagogikoak baimentzen ez badu, erlazio horren berri eman beharko dio irakasleak Zuzendaritzari.

3.3.4.- Debekatuta dago material pornografikorik edo antzekorik edukitzea, banatzea, erakustea edota horretan pertsonalki parte hartzea, baita adingabeei horiek eskuratzen laguntzea ere.

3.3.5.- Irakasleek ez diete ordaindutako zerbitzu partikularrik eskainiko beren ikasle direnei edota izan daitezkeenei. Halaber, orientazio-zerbitzuko kideek ezingo dituzte ikasleak beren kontsulta edo bulego psikopedagogiko proiektara bideratu.

3.3.6.- Debekatuta dago ikastetxeko instalazioetan erretzea, 28/2005 Legearen eta lege hori garatzen duen arautegiaren arabera. Halaber, adinez nagusiek tabakoa kontsumitzea ere mugatu ahal izango da ikasleekin partekatzen dituzten instalazioetan, esparruetan edo inguru-

rietan edota haien aurrean (bidaiak, bisitak, irteerak, ikastetxetik kanpoko eskola-ekitaldiak, etab.).

3.3.7.- Debekatuta dago edozein motatako droga, edari alkoholiko edo osasunarentzat kaltegarri den beste edozein substantzia edukitzea, horiekin trafikitzea, kontsumitzea edo horien erabilera sustatzea, bai Ikastetxearen esparruaren barnean bai kanpoan, hots, eskolako beste jardueretan (bidaiak, irteerak, etab.). Halaber, debekatuta dago irakasleek edo ikasleek substantzia horiek kontsumitu ondorengo efektupean parte hartzea curriculumaren barneko nahiz kanpoko hezkuntza-ekitaldietan.

3.3.8.- Edari alkoholikoei dagozkien debekuetatik kanpo geldi daitezke eskola-barrutiaren barnean dauden kantinak, "elkartek" edo tabernak, eskola-ordutegi eta garaietatik kanpo, eta, halaber, ospakizun-egoera bereziak ere. Dena den, egoera horiek Ikastetxeko Zuzendaritzaren berariazko baimena izan behar dute, eta indarrean dagoen legediarekin bat etorri

3.3.9.- Edozein jarduera edo ospakizun debekatuko da, horietan parte hartuko dutenen segurtasuna bermatu ezin bada edo Ikastetxeen irudi onari negatiboki eragiten diotenean.

3.3.10.- Beren jarduera garapenean, langileek ezingo dute oparirik jaso, horiek jasotzeak erabaki profesionalak hartzeko orduan eraginik izan badezake. Halaber, enpresaren baten edo edozein erakunderen aldetik opariren bat jasoz gero, Zentroaren eskura jarriko da berori.

3.4.- Irudia

3.4.1.- Langileek oro beren zereginerako egoki diren jantziak eramango dituzte. Uniformea, mantala, lan-jantzia etab. izanez gero, berori jantzi beharko dute, eta ondo zaindu.

3.4.2.- Langileek beren higieena eta itxura personal orokorra zainduko dute, hezkuntza-elkarte osorako eredu direla jabetuta.



4. BETEBEHAR PERTSONALAK

Barrutiko kide guztiek legea bete behar dute eta printzipio etikoak errespetatu. Gizarte-erantzukizuna nahiz ingurumenarekikoa erakutsi behar dute, bai eta profesionaltasuna ere, eta Hezkuntza Zentroen Berezko Izaera kontuan izan eta beren zereginean jardunbide egokiak erabili.



5. BAZTERKETARIK EZA

Barrutiko kide guztiek beren zuzendarien, ikasleen, familien eta lankideen aldetik tratatu bidezkoa, abegitsua eta errespetuzkoa jasotzeko eskubidea dute.

Barrutiak ez du jazarpenik edo bazterketarik onartuko, ez arrazagatik, erlijioagatik, kredoagatik, naziotasunagatik, sexuagatik, ezintasunengatik edota adinagatik.



6. INTERES- GATAZKAK

Eskainiko edota kontratatuko diren zerbitzuak Barrutiaren xedeak kontuan hartuta garatu behar dira. Barrutiko langileekin harremana duten pertsonak, erakundeek edo enpresek ezin dute bidegabeki inolako onurarik jaso, langile horien bitartez edo pertsona horiek Barrutiaren barnean duen karguaren ondorioz.

Langileek ezingo dute onurarik eskuratu bidegabeki. Barrutiko langileen arduren eta beren interes pertsonalen artean gatazkak sor ditzakeen edozein egoera saihestu behar da. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazioa funtsezkoa izango da.



7. EROSKERIAK, KOMISIOAK, BEZUZAK, OPARIAK

Barrutiko kideek ez diote inoiz inolako ordainketarik egingo edo ez diote abantaila ekonomiko desegokirik eskainiko funtzionario publiko bati edo Administrazioaren menpeko erakunde bati merkataritza-tratuen edo beste zenbait zerbitzuren truke, eta ez dira eroskeriatan arituko, funtzionario publikoen ustelkeriaren kontrako ELGEren Konbentzioan ezartzen denaren arabera. (1/2015 Legean jasotako baldintzak).

Barrutiko kideek ez diote inoiz inolako ordainketarik egingo edo ez diote abantaila ekonomiko desegokirik eskainiko edozein pertsona fisiko edo juridikori merkataritza-tratuen edo beste zenbait zerbitzuren truke, eta ez dira eroskeriatan arituko.

Funtzionario publikoei zuzendutako bezuzak eta enpresa-opariak, halakorik onartzen bada, Barrutiko gastuen arautegi orokorrarekin bat etorritik egin behar dira, eta arauen arabera beti. Ezin da hirugarrenetara jo lehen aipatutako xedapenetakoren bat saihesteko.



8. INFORMAZIO PRIBILEGIATUA BIDEGABEKI ERABILTZEA

Barrutiari buruzko informazio pribilegiatua duen orok ezingo die informazio hori hirugarrenei eman.

Izaera publikoko informazioa eta datuak ez dira informazio pribilegiatutzat hartuko. Pertsonak ez diete inoiz hirugarrenei informazio pribilegiaturik emango, adiskideak eta senitartekoak barne. Informazio pribilegiatuari buruzko murrizketek indarrean jarraituko dute planak edo inplikaturako gertaerak publiko egin arte. Informazio pribilegiatuaren erabilera okerrak zigor zibilak eta penalak ekar ditzake berarekin.



9. JABETZA INTELEKTUALA

Barrutia osatzen duten pertsonak jabetza intelektualatik eta industrialetik ondorioztatutako eskubideak errespetatuko dituzte bere lan-jardueran, eta debekatuta dago jardueraren esparruan eskubide horien urraketa eragingo duen ekintza oro.

Barrutiko langileek beren zereginen eta jardueraren barnean egindako edozein aurkikuntza, asmakuntza, ikerketa-lerro edo dokumenturi dagokienez, berorien ustiapen-eskubideak erakunde titularrari dagozkio, ohiko bere jardueraren esparruaren barnean. Hori guztia, egindako lanaren egileari zor zaion aitortza moralari kalterik egin gabe.

Barrutiko langileek ez dute banatuko ikasleen eta familien artean, Erakundearen baimenik gabe, honen izena, sinadura edo zeinu identifikatzaileraren bat, edo beste zeinu bereizgarriren bat duen materialik.



10. PRIBATUTASUNA ETA DATUEN BABESA

Datuen babesari dagokionez, Barrutiarekin lotutako pertsona fisiko edo juridiko guztien eskubideak errespetatuko dira.

Barrutiak eta bere obrek izaera pertsonaleko datuak jasotzen eta prozesatzen dituzte beren jardueraren berariazko premietarako, eta informazio hori zertarako biltzen duten eta zer prozesu jarraitzen duen adierazten diete dagokien pertsoneri, berorien eskubideak gauzatzea ahalbidetuz eta erraztuz.



11. LEGEAK BETETZEA

Legeak betetzea Barrutiarentzat eta Barrutiko kideentzat baldintzarik gabe bete beharrezkoa da; ezagutu beharko dute aplikatzeko den arautegi orokorra (Kode Penala, Kode Zibila, Datu Pertsonalak Babesteko Legea, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea etab.) eta beren jarduerarekin lotutako legeak, bereziki Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Legea, izan ere, Barrutian adingabeekin garatzen den jarduera edo zeregin berezia kontuan hartuta, *“tratu txarrak, arrisku-egoera edo babes-gabezia egoera hautematen dutenean, agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazi behar diete, behar duen laguntza berehala eskaini ondoren”*. Barrutiak aholkularitza eskaini beharko du horiek guztiak ezagutzeko eta betetzeko.

Kasu guztietan, Barrutiak arduraz jokatu du, eta herri-administrazioetatik, epaitegietatik eta auzitegietatik irits daitezkeen azken erabakiak onartuko ditu.



12. FINANTZA- INFORMAZIOAREN INTEGRITATEA

Barrutiak finantza-egoerari buruzko kontrol eraginkorrak egiten ditu, finantza-transakzio eta kontabilitateko egoera-orri guztien egiazkotasuna eta zehaztasuna bermatzeko.



13. ETIKAKO BATZORDEA

Kode hau aldian-aldian berrikustez eta beronen betetze mailaren jarraipena egiteaz arduratzen da.

Halaber, jasotako jakinarazpenen jarraipena eta, hala dagokionean, ikerketa egingo du, eta azterketa hori egiteko beharrezko deritzon pertsonen edo departamenduen laguntza eska dezake.



14. SALAKETAK ETA ZIGORRAK IZAPIDETZEA

Edonork jo ahal izango du Etikako Batzordera Etika eta Jokabide Kode honetan jasotako jokabideak betetzen ez direla edo urratzen direla adierazten duten gertaeren berri emateko.

Norbaitek pentsatzen badu Etika eta Jokabide Kode honen edo indarrean dagoen lege-arautegiaren aurka doan egoeraren bat pairatzen ari dela, horren berri emango die eskumena duten aginte-organoei edo Etikako Batzordeari, egoera hori aztertzeke eta jarraipena egiteko.

Halaber, hirugarren batzuen kontra Kode honen edo indarrean dagoen arautegiaren aurka doazen jokabideak gauzatzen direla jakingo balu, Etikako Batzordeari jakinarazi beharko dio, edo Kanal Etikora bideratuko du (gestoretico@lasa-

le.es), egoera hori aztertzeke eta, hala badagokio, ikerketa abiarazteke eta hartu beharreko neurriak hartzeke.

Etikako Batzordeak bermatuko du ustez legez kontrakoak diren jarduketan jakinarazpenen konfidentzialtasuna, indarrean dagoen legediaren arabera.

Jakinarazten zaio funtsik gabeko salaketak, dudazkoak edo faltsuak egiten dituenari, horren erantzule izango litzatekeela.

Etika eta Jokabide Kode honetan jasotakoak betetzen ez dituzten langileen aurka dagozkien diziplina-ekintzak bideratu ahal izango dira, lanetik botatzea barne.

La  **Salle**
ARLEP Barrutia